

IRAUPEN LUZEKO ZAINKETAK PERTSONALIZATZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN AINTZATESPENAK



ZAINKETEN JARRAITUTASUNA
OPTIMIZATZEA: LEKUALDATZE-
TXOSTENAK ETA BALORAZIO
PERTSONALIZATUA EZARTZEA
“INTEGRA” SISTEMAN

ENEKURI LORATEGIA ZAHAR-ETXEA

E ARDATZA: ESKUHARTZEAN TEKNOLOGIA BERRITZAILEAK ERABILTZEA

ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA

Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoei arreta-zerbitzu integral eta soziosanitarioak emateko premian du jatorria Enekuri Lorategia proiektuak. Enekuriko muinoan kokatuta, Enekuri Lorategia ingurune seguru, eroso eta aberasgarria eskaintzeko helburuz sortu da, eta egoiliarren premia fisiko nahiz emozionalak artatzeko diseinatuta dago. Zahar-etxeak azpiegitura modernoa eta teknologia aurreratuak dauzka, eta, horri esker, kalitate handiko arreta pertsonalizatua ematen du.

Gaur egun, 112 toki dauzkagu, bizikidetza-unitateetan banatuta, ikuspegi zabal-zabalak dituzten abangoardiako instalazio batzuetan, non osasunaren arloko eta adinekoen zaintzaren arloko 80 profesional baino gehiago baitabiltza lanean.

ESPARRU TEORIKOA: ARRETA MEDIKOAN TRATU DUINA JASOTZEKO ESKUBIDEA

Urteen poderioz, zahar-etxeek aurrera egin dute, eta, lelekua, elikadura eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen zituen eredu tradizionala atzean utzita, pertsonarengan zentratutako arreta lehenesten duen eredua hartu dute.

Iraupen luzeko zainketa soziosanitarioetan, egoiliar bat ospitalera eramaten denean aurretiko zainketekin jarraituko dela ziurtatzea da erronka handienetako bat. Tradizioan, egoitza-ingurunearen eta ospitalearen arteko trantsizioa konplexua izan da, pazienteari buruzko informazio egokirik ez zegoelako; horren ondorioz, askotan, ez zen arreta pertsonalizaturik ematen. Egoiliarra ospitaleratzea eragin zuen egoera akutua tratatzeari ematen zitzaionez lehentasuna, haren duintasunarekin eta premia partikularrekin lotutako alderdi giltzarriak bazter uzten ziren maiz.

Etika medikoan, giza duintasunarekiko errespetua da oinarritzko printzipioetako bat, hau da, pazienteak gorputz gaixotzat bakarrik tratatu beharrean eskubide, balio eta historiadun pertsonatzat ere hartzea. Iraupen luzeko zentro bateko egoiliar bat ospitalera eramaten dutenean, printzipio etiko horiek arriskuan jartzen dira, haren historiari eta zainketei buruzko informazio egokia ematen ez bada. Egoiliarra ospitalera deribatzen denean, haren egoerari, premiei eta lehentasunei buruzko informazioak eskura egon behar du beti, arreta duin eta egokia jasoko duela bermatzeko.

Duintasuna, Goicoecheak azaldu moduan, ezin daiteke banandu pazientearen testuinguruari buruzko informaziotik. Krisi mediko bat egonkortzea ez da nahikoa: ezinbestekoa da pertsonaren historia, gaitasunak, errutinak eta ongizate emozionala aintzat hartzea.

Hala, zainketen jarraitutasuna hobetzen duen sistema bat ezarri dugu Enekuri Lorategian eta taldeko zentroetan, informazio medikoa eta zainketen balorazio egokitua jasotzen dituen lekualdatze-txosten xehe batean oinarritua. Estrategia horrekin, ziurtatu egiten da ospitaleko egonaldian

ZAINKETEN JARRAITUTASUNA OPTIMIZATZEA: LEKUALDATZE-
TXOSTENAK ETA BALORAZIO PERTSONALIZATUA EZARTZEA
"INTEGRA" SISTEMAN

ENEKURI LORATEGIA ZAHAR-ETXEA

egoiliarren bizi-historia, premia partikularrak eta berezitasunak errespetatuko direla, arreta duin eta pertsonalatuagoari bide emateko.

Medikuek eta erizainek zainketen jarraitutasunean jokatzeko duten rola

Iraupen luzeko zainketak eskaintzen dituzten zentroetako medikuek eta erizainek funtsezko eginkizuna betetzen dute egoiliarren ospitalera eramaten direnean haien duintasuna babesteko orduan. Tradizioan, egoiliarren egoerari buruzko informazio xehetrik ez edukitzeak asko zailtzen zuen ospitaleetako taldeek arreta integrala ematea. Gainera, paperean zeuden txostenak galdu egiten ziren askotan, edo berandu iristen, eta horrek frustrazioa eragiten zien hala langileei, nola familiei.

Osabide Integra sistema ezarrita, lekualdatze-txostenetara eta zainketen balorazioetara digitalki sartzeko aukera ematen duenez (Osakidetzaaren plataforman), izugarri hobetu da trantsizioaren kalitatea. Izan ere, sistema horrek bermatu egiten du ospitaleko langileek egoiliarren mediku- eta zainketa-premiei buruzko informazioa eskura edukitzea. Horrela, arreta pertsonalizatzen dute, eta pazientearen berezitasunetara egokitzen, duintasuna eskuhartze kliniko guzti-guztietan osagai nagusietako bat izatea ziurtatzearekin batera.

Osasun-langileen lanak berekin dakar pazienteari buruzko informazioa arreta-maila guztietan txertatzea. **Egoiliarren egoera fisikoa ez ezik haren errutina eta lehentasunak ere islatzen dituzten balorazioak ematean, haren duintasuna eta nortasuna errespetatutako dituen jarraitutasuna bermatzen da.** Eta hori funtsezkoa da ingurune desberdinen arteko deribazio-prozesuetan, hala nola zahar-egoitzen eta ospitaleen artekoetan.

JARDUNBIDE ONAK EZARTZEA Hasierako egoera eta premia:

Enekuri Lorategia zahar-etxean ikusi genuenez, egoiliarren ospitalera eramaten dituztenean aurretiko zainketekin jarraitzea izaten da iraupen luzeko egoiliarren arretan sarrien agertzen den erronketako bat. Lehen, egoiliarren ospitalera eramaten zirenean, mediku-txostena paperean ematen zen, baina, askotan, bidean galtzen zen; horren ondorioz, deskonexioa gertatzen zen egoiliarrek zahar-etxean jasotzen zituzten zainketen eta ospitalekoen artean. Ospitaleko langileek patologia akutua egonkortzen zieten egoiliarrei, baina ez zuten izaten haien eguneroko premiei, aurretiko historia klinikoari, lehentasunei edo berezitasunei buruzko informazio garrantzitsurik, eta horrek, frustrazioa eragiteaz gainera, zainketen kalitatea okertzen zuen.

Problematika horren aurrean, lekualdatze-txostenen digitalizazioan oinarritutako hobekuntza teknologiko bat ezarri genuen, txostenak **Osakidetzaaren Osabide Integra plataformara** sartuz eta **zainketen balorazio pertsonalizatua** gaineratuz.

Lekualdatze-txostenak egoiliarren egoerari buruzko informazio mediko xehea jasotzen du, eta zainketen balorazioak funtsezko zenbait alderdi jasotzen ditu, hala nola mugikortasuna, elikadura, eguneroko errutina, komunikazioa eta ongizate emozionala. Datuok, ospitaleko langileek ikuspegi integral batekin arta dezakete pazienteak, berehalako arreta medikotik harago joz.

Enekuri Lorategia zahar-etxean uste dugunez, medikuek eta erizainek teknika bakarrik izango ez den arreta emateko erantzukizuna dute, arlo emozionalari ere heldu behar baitiote. Pazientearen historia eta ongizatea kontuan hartzen badira, tratu enpatikoa sustatzen da, eta, horrela, baita haren duintasuna errespetatzen ere. Eskuhartze mediko hutsetik harago joateko aukera ematen du horrek, premiak eta kezkak dituen pertsonatzat hartzen delako pazienteak.

Sistema berritzaile horrek zainketen jarraitutasuna hobetzen du, denbora errealean ematen duelako arlo medikoari eta zainketei buruzko informazioa, ospitaleko profesionalen eskueran jarrita; horrela, informazioa galtzeko arriskua murrizten da, eta egoiliarri arreta humanizatu eta duina ematea ziurtatzen.

ZAINKETEN JARRAITUTASUNA OPTIMIZATZEA: LEKUALDATZE-
TXOSTENAK ETA BALORAZIO PERTSONALIZATUA EZARTZEA
"INTEGRA" SISTEMAN

ENEKURI LORATEGIA ZAHAR-ETXEA

Ezarpena:

Praktika berritzaile hori aplikatzen hasteko, Osabide Integra plataforma erabiltzen ikasteko prestakuntza eman genien medikuei eta erizainei. Gero, lekualdatze-txostenen formatua estandarizatu genuen, eta zainketen balorazio egokitu txertatu. Egoiliar bat ospitalera eramaten den aldiro, txosten medikoa eta zainketen balorazioa automatikoki igotzen dira plataforma digitalera, ospitaleko profesionalek berehala eskuratu ahal izan dezaten egoiliarrari ahalik eta arreta onena emateko behar den informazio garrantzitsu guztia. Ospitaleko langileekin elkarlanean, zainketen balorazioan sartu beharreko alderdi giltzarriak identifikatu genituen, egoiliarraren bizi-kalitateari zuzenean eragiten dioten arloak estaltzea ziurtatzeko.

Erronkak:

Hasieran, aldaketa teknologikoa bera erronka handia izan zen hala zahar-etxeko medikuentzat, nola ospitaleko profesionalentzat. Oztopo hori arintzeko asmoz, plataforma digitalaren erabilerari buruzko prestakuntza-lantegiak egin genituen, eta jarraipen-protokoloak ezarri, txostenak ondo igotzea eta informazioa une oro eskuragarria izatea bermatzeko helburuz. Gainera, hainbat lekualdatzetan proba pilotuak egin genituen, praktika oso-osorik ezarri aurretik.

Emaitzak:

Praktika hau ezartzen hasi ginenetik, ospitalerako lekualdatzeetan zainketen kalitatea eta jarraitutasuna nabarmen hobetu zirela ikusi genuen. Emaizta nabarmenen artean, hauek daude:

- **Informazio-galera murriztu da:** Sistema digitalarekin, profesionalek beti dute informazioa eskura, eta, beraz, paperean zetozen txostenekin lotutako arazoak desagertu dira.
- **Arreta pertsonalizatua hobetu da:** Ospitaleko taldeek zainketen balorazio pertsonalizaturako sarbidea dute, eta horrek bidea jarri du tratamenduak eta zainketak egoiliarraren premia espezifikotara egokitzeko; ondorioz, ospitaleko egonaldian ongizate orokorra hobetu da.
- **Familiak asebateago daude:** Familiak sistemarekin pozik daudela adierazi dute. Ziurtatu dutenez, senide maiteak arreta pertsonalizatu berbera jasotzen du ospitalean eta zahar-etxean, eta horrek lekualdatze- eta ospitaleratze-prozesuarekiko konfiantza areagotu du.
- **Zahar-etxearen eta ospitalearen arteko koordinazioa hobetu da:** Bi taldeen arteko lankidetzeta eta komunikazioa hobetu dira, eta informazioa emateko itxaronaldia murriztu. Horri esker, pertsona, egonkortu ondoren, errazago itzultzen da zahar-etxera.

Ebaluazioa:

Praktika eraginkorra eta jasangarria dela egiaztatu dugu. Txostenak digitalizatzeko teknologia erabiltzeak arretaren kalitatea hobetu du, eta, era berean, lana hobeto antolatzeko eta giza baliabideak optimizatzeko modua eman du. Sistema digitalari esker, informazioa beti dago eskura eta eguneratuta, eta horrek zahar-etxeko nahiz ospitaleko jardueraren eraginkortasuna handitu du.

Transferitzeko aukera:

Praktika hau transferitzeko aukera handia dago, iraupen luzeko edozein zentrok aplika dezakeelako lekualdatze-txostenak eta zainketen balorazioa digitalizatzeko sistema bat. Antzeko osasun-sistema duten eskualdeetan, sarbide partekatuko plataforma digitalak erabil ditzakete (adibidez, Osabide Integra), arreta sanitarioaren etapa guztietan berma dezaten zainketetan jarraitutasuna egotea.

ZAINKETEN JARRAITUTASUNA OPTIMIZATZEA: LEKUALDATZE-
TXOSTENAK ETA BALORAZIO PERTSONALIZATUA EZARTZEA
"INTEGRA" SISTEMAN

ENEKURI LORATEGIA ZAHAR-ETXEA

ZAINKETEN BALORAZIO EGOKITUAREN ONURAK

Mediku-txostenarekin batera igotzen den zainketen balorazio egokituak, informazio klinikoaz gainera, egoiliarren bizitzako alderdi garrantzitsuak jasotzen ditu, lehen begiratuan hutsalak iruditu arren ospitalean ondo egoteko funtsezkoak direnak.

Balorazioan, hainbat alderdi islatzen dira (esaterako, mugikortasuna, elikadura, eguneroko errutina eta lehentasunak), eta horrek ikuspegi humanizatuagoarekin jarduten laguntzen dio ospitaleko taldeari.

Zainketa jarduera moral bat da, eta, ekintza fisikoa ez ezik, ekintza erlazionala ere inplikatzeko du. Zainketen balorazioak bermatu egiten du pertsona duintasunez tratatzea, eskuhartze medikoaren hartzaile hustzat jo ordez. Errutinei eta lehentasunei buruzko informazioarekin, ospitaleko taldeak eskuhartzea egokitu dezake, gaixotasuna sendatzeaz gainera ongizatea ere hobetzeko.

Sistema honek, halaber, lasaiago uzten ditu familiak. Askotan, familiak beldur izaten dira, uste dutelako balitekeela haien senide maiteak ospitaleko egonaldian zahar-etxeko arreta pertsonalizatua ez jasotzea. Lekualdatze-txostenak eta zainketen balorazio xeheak ezarrita, familiek ziurtasunez espero dezakete ospitaleak senidea ondo tratatzeko behar den informazioa edukitzea. Gardentasunak eta informaziorako irispideak familien eta medikuen arteko konfiantzazko harremana indartzen dute, eta horrek areagotu egin die senidea ospitaleko egonaldian errespetuz eta duintasunez tratatuko dutelako ustea.

Zahar-egoitzako langileentzat, oso lasaigarria da jakitea informazioa ospitalera ondo iritsi dela eta egoiliarra ikuspegi integralarekin tratatuko dutela. Gainera, zahar-etxeko eta ospitaleko taldeen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzeak asko errazten du itzulera-prozesua, kausa akutua konpondu ondoren.

ONDORIOA

Osabide Integraren bidez lekualdatze-txostenak eta zainketen balorazioak transmititzea ahalbidetzen duen sistema bat ezartzeak, prozesuaren eraginkortasuna hobetzeaz gainera, funtsezko printzipio etiko bat indartzen du: pazienteak tratatu duina jasotzeko daukan eskubidea. Pazientearen duintasuna ezin daiteke inola ere negoziatu, inguruabar batean ere ez. Ikuspegi horri esker, pazienteak ospitalera eraman duen patologia tratatzeaz gainera, haren berezitasunak, historia eta premiak errespetatzen dira, eta, horrenbestez, zainketen jarraitutasuna eta kalitatea hobetzen dira, arretaren fase guztietan.

Lekualdatze-txostenak eta zainketen balorazio pertsonalizatuak ezarrita zainketen jarraitutasuna hobetu egin denez, Enekuri Lorategia zahar-etxeko egoiliarrek arreta duin eta pertsonalizatuagoa jasotzen dute ospitaleko egonaldian, haien premietara egokituagoa. Praktika hau etika soziosanitarioan oinarritzen da, eta arreta-prozesuaren erdigunean kokatzen du egoiliarra, haren bizitza eta lehentasunak errespetatu daitezela. Bestalde, teknologia digitala erabiltzeak optimizatu egin du zahar-etxeko eta ospitaleko langileen arteko koordinazioa, eta horrek emaitzak hobetu ditu, bai egoiliarrentzat, bai familientzat, bai profesionalentzat.

Ikuspegi horrek egoiliarren duintasunari eta ongizateari ematen dio lehentasuna, eta, beraz, jardunbide onen adibidea da, beste zentro eta antolakunde batzuetan errepika dezaketena, sare soziosanitario osoan zainketen kalitatea hobetzen laguntzeko.